

Suomiar bidea

TXILLARDEGI



AZKEN gertakariak gertaturik, barne-hausnarketa mamitzeko aukera egokita izaten da. Nazio-askatasuna bortzarik gabe lortzen inor saiatu bada Suomi izan da herri hori; Finlandia, alegia, Sueziarrek ezarritako izendapena onartzen badugu.

Orain 25 bat urte gutxienez, 'Bobrikoff' izeneko artikulatu bat idatzi nuen garai esperantzatsua haierako 'Zeruko Argia' zelakoa.

Bobrikoff izan baitzen Errusiaren politika 'integratzailea' Suomin mamitzen saiatu zena. 1899ko otsailaren 'Manifesto' izeneko plana kalera zuen Bobrikoff gobernariak.

Moskuko plan hura lerro gutxitara bildu nahi izatekotan, hiru ziren ideia nagusiak: 1) Suomiko administrazio-aparatu osoa 'erregionalizatzea' (kentzea ez, kasu!); 2) Suomiko Armada Nazionala, Errusiako organigraman 'integratzea' (kentzea ez, kasu!); eta 3) Suomiko hizkuntza ofiziala, erрусiera jartzea.

Tolstoiaren eraginez, abertzaleek bortzarik gabeko bidea hautatu zuten (denek ez, ondoko urteetan agertuko zenez). Jokabide baketsu hark ez du *extero ore* ikusi behar gure inguruan agertu eta ugaldu diren talde kolaborazionistekin. Harrigarria da, hain zuzen, horren bortzikerien kontrako omen diren apostolu horiek Suomiko Mogimendu hori hobeki ez ezagutzera. (Hona hemen informazio iturri bat: Helsinki Unibertsitatean argitaratutako Tesia: 'Constitutionalist Insurgency in Finland', Steven Duncan Huxley, SHS Helsinki 1990).

Jokabide hori definitzekotan, hitz hauek erabiltzen ditu Steven Duncanek: '*Finnish passive resistance did not include the tactic of fraternizing with enemy Russians. On the contrary, resistance propagandists advocated the extreme social boycott of them and their Finnish collaborators*' (259. orr.).

Bidenabar: Eugen Schauman izeneko abertzale batek hil zuten Bobrikoff.

Hau ere Suominen Askatasunaren Kondairan kondatzen da. Zoritxarrez bada ere.

Zerbait amaitzen

RAMON LABAIEN



NAHASTUAK ibili arren gauzak, hasiak gera susmatzen zerbait berriren sorkundea...

Euskal Herrian, HBren barne miazte hori, Iurretietara bihurtze bat edo bihurtzeko lehen gogo bat... Nabaritze bat, Telesfororen ametsetatik, Ordoñez baten hilketara, zein luzea izan den bidea eta nolakoa berakada. Garbitasunaren argitik zimauregiaren zulora. Ainitz gera, Euskal Herrian, opa diegunak izanen direla gauza, kezkarik gabe, zuzenbideruntz jotzeko, arantza eta guzti. Duten indar hori, besteak azaltzen dugunarekin gehi izateko...

Deus ez denak eta nehorren izenean, indarkeri mota goitikagarriena aukeratzaren duenean, gizarte osoa lotsatuz, eusko nazioari kanpotik datozkion okerrak izkutuak bezala uzten ditu.

Behin eta berriro esan behar aukera bat dugula: edo zuzen-bidearen indarra edo indarkeriaren ahultasuna... Astakeriak bantzetuz, hasten garenean gure Eskubideetat mintzatzen eta Eskubide horiei Estatutik egiten zuten indarkeri hotsa aztertzen, gaur dugun pake-mahai horren bazkideetan izanen litzake aldaketa bat bainan gehiago Madrilen bestetik, denak larri. GALerena ari delako Estatuaren maila gorentara hurbiltzen. Iritzi bat ari da sortzen, hauteskunde aurreratuek, alderdi bat bestearen lekuan jarritz ez dutela ezer konponduko. Estatuaren kontzeptu berri bat behar litzatekeela asmatu. Sabino Fernandez Camposak, militarra eta Erregearen laguntzaile nagusi izana, Erregearentzat Arbitrai potereak eskatzen dituenan, ez dakit bere izenean ari den, edo Erregearenean edo bere estamendurenean, bainan bai Konstituzioaren aldaketa bat duela proposatzen. Hortik doaz gauzak. Noruzt eta noraino, horra denon kezka eta bereziki, Euskal Herriarena.

HEMEROTEKA

EL DIARIO VASCO

Gurutzada anti-euskalduna

Ez da anti-euskalduna esatea ez dela gauza bera euskara irakastea edo euskaraz irakastea —eskubide aberasgarria kulturaren aldetik, burutik sano dagoen inork eztabaidatzen ez duena— eta euskalduntzeko erabiliztea euskararen irakaskuntza, hots, ikuspegi hertsia transmititzeko, ikuspegi baztertzaila eta



Itsumandoka. «Ez naiz jostatzen!». IDIGORAS Y PACHI / EL MUNDO

kriminogenoa, frankismoaren zoritxarreko *espíritu nacionalaren formazioa* bezalatsukoa.

Ez da anti-euskalduna, halaber, adieraztea hiltzen eta estorsionatzen duen mafiarekin negoziatzea doilorki erreazionarios izango litzatekeela, hala nola litzatekeen beltzak hiltzen edo turkiarrak erretzen dituztenekin zuhurtziakoa ituna sinatzea (derragun azken horiek ere hainbat burugabetuk sostengatzen dituztela), bidenabar gogoratzu Leitzarangoa kasu lotsagarria eta suizida kutsukoa izan zela, berriz gertatu behar ez duena.

FERNANDO SAVATER

ZUZENDARIARI

Zizurkilgo Udalarri: noizko?

Zizurkilgo Udalarrekin etxebizitza batzuen sal-erosketa kontratua izenpetu genuen, beraz zelarik etxebizitzaren erakaitzen eragile. Eraiketa finantziatu genuen Udalak ezarritako amaiera data arte. 93ko udaran estreinautu behar genituen baina, eraikuntzako kontu hauek honela izan ohi dira eta data hau ez da errespetatzen. 93 eta 94ean zehar eraiketaaren amaiera noiz helduko zain gaudela ura sartzan hasten da leihotatik (dena konpontzen da goma eta silikonak baina oraindik ere, ura sartzan da), ura sartzan da telatutik (jakina da Zizurkilgo klima berezia dena eta gauza sinesgaitzak gertatzen dira: haizearekin telak altxa egiten dira); kontraleihoi behin baino gehiagotan aldatu zaizkie loturak baina oraindik ere hautsi egiten dira...

Eta honela, oraindik amaitu ez diren lanak eta sortu diren arazoekin zerbait luze bat egin dezakegu. Honen aurrean, zein erantzun jaso dugu? Promesak eta «bihar, bihar...». Udalaren erabateko pasibitatea. Honela dararamagu urte 1/2 erdi luze.

Hau al da bere herkieiden interesak defendatzen dituen Udala?

ARANTXA ODRIUZOLA JAUREGI
ETA BESTE 11 SINADURA

Zizurkil (Gipuzkoa)

Odolak ez digu mesederik egingo!

Soberan ezagutzen dugu Euskal Herriak jasan duen sufrikarioa. Soberan ezagutzen ditugu Euskal Herriari behin eta berriro ipintzen dizkieten zankadilak, baina hórrek ez du dena justifikatzen, ez baikaara inoren borroro

JOSEBA AURKENERENA

Irun (Gipuzkoa)

Peru eta Stein

Bixente Perurena 'Peru' eta Anjel Gurmindo 'Stein' hil zituen GALek Hendaiaiko

karrika batetan 1984ko otsailaren 8an, hamaika urte beraz gertaera mingarri eta Estatu Krimen hura burutu zutenetik. Lau hila-bete eta zortzi egun lehenago burutu zuen GALek bere lehen agindua, Joxean Lasa eta Joxi Zabala bauru zituen eta geroztik ez da ezer jakin bi gazte abertzale hauek. Azken militante abertzale erahila Josu Muguruza izan zen 1989ko azaroaren 20an Madrilgo Hotel Alcalaen. Beraz, sei urte hilabete eta lau egun hauek beste 22 erahil zituzten, guztira 28 euskaldun eta abertzaleen aurkako heriotza gerra-judizial burutu zituen espainiar Estatuako 'Demokrazia gazteak'.

Juan Carlos I, Felipe Gonzalez, Mitterrand, Urralburu eta Ardanza Lehendakariaren aroa izan da denbora guzti hau, bitxia benetan! Jeltzaleak, Sozialistak eta Monarkuia; Toizu demokrazia!

Igande honetan, Bidasoa ibaiaren alizioan burutuko den ekitaldiarekin amaituko da asbesturuko mobilizazio gerra-judiziala, etzen gutxiagorako.

Zergatik mobilizazio hau? Bada, Herri honen memoria duelako zorionez, memoria delako Herrien motor eta armarik indartsuena, erreferentzia delako, memoriarik gabe ez dago abiaturirik, helmugarik ez dagoen bezelaxe. Horrexegatik, euskaldunok anitz sufritu dugu, baina adiki berean zorte handiko Herria gara, badakigu nondik gatozen eta norra goazen ere.

Bere gudari hilak ahantzi, beraz iraganda edo memoria galdu duen Herria, Herri izateari utzi dioen Herria da.

Etorkezunarekin hitzartuak gaudelako ez dugu galdu memoriarik. Hondarribian ikusiko gara!

JULEN ZELARAIN

Hernani (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Rafael Vera

Madriletik bultzatu zenuten GALera: milioiak poltsikora jendea lurpera. Valdemorera edo Carabanchelera, X-a joango al da zurekin batera? Izan ere duzue delitu berVera.

MANU GOMEZ

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODJK KUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URUA

Zuzendaria: MARXELGO OTAMENDI

Gereotza: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egolitza nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain
☎ 30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 07

Arabes: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Inaxio Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña
☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. leherria / 48003 Bilbo
☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta kutsatia, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11